

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Urkizu Pasealekua nº 11 Urkizu 11ko dorrearen igogailuetara dagoen pasabidea ixteko baimena emateko aukerarik dagoen aztertzea eskatu dute.	<b>Hirigintza</b>	Gobernu Batzarrak igarobidea ixtearen alde egin du. Aurrekontuak ekarri dituzte eta denbora gutxi barru tramitatuko da lizentzia
Errebalgo proiektuaren berri galdetzen dute	<b>Hirigintza</b>	2013ko maiatzean, udalak parte-hartze prozesu bat martxan ipini zuen erabilerak zehaztu eta adosteko. Laster aurkeztuko dira emaitzak.
Gaztetxeak (Iparragirre 2) sortzen duen gogaikarritasunaz kexatu dira: musika goizaldera arte, inguruetan usaina pixa egiteagatik	<b>Hirigintza</b>	Kexatu den pertsonetako batekin berba eginda, udaletik tramitatzen ari den prozeduraren berri eman zaio eta lokalaren jabea den enpresari bidaltzen ari zaizkion aginduen berri ere bai. Auzokoei eskatuta, Udaltzaingotik neurketak egin dira eta Hirigintza sailari bidali zaizkio parteak.
Solac, Norma eta Txontako beste industria-eraikin batzuk botatzea eskatu dute	<b>Hirigintza</b>	Eraispen hori esparruaren urbanizazio-karga bat da, urbanizazioarekin lotutakoa. Udalak ezin du horrelakorik bere gain hartu.
Solac-eko fatxadatik kaskoteak jausi direla salatu dute	<b>Hirigintza</b>	2007 urteaz geroztik dugu horren inguruko espedientea zabaldua, eta aldian aldika egikaritze-aginduak bidaltzen dizkiegu, neurri batean betetzen dituztenak. Gainera, hertsatze-isunen bat edo beste ere ezarri zaie. Espediente hori oraindik zabalik dago.
Futbitoko kantxa berriak ez duela araudia betetzen salatu dute	<b>Obrak</b>	Ez da erregelamenduzko kantxa bat, jolaserako eta aisialdirako leku bat baizik.
Ahal denean, Saratsuegirako eskailerak jartzea eskatu dute	<b>Obrak</b>	Udalak, oraingoan behintzat, ez du Saratsuegin (Sautsi) eskailera mekanikoak jartzeko Asmorik. Hurrengo planifikazioetan, eskaera kontuan hartuko da.
Azitaingo tren-geltoki berrirako zubian mugikortasun murriztuko pertsonen irisgarritasun arazoak dituztela oharteman dute. Zubiari, duen aldapa kentzea edo/eta pasabide lau bat jartzea eskatu dute	<b>Obrak</b>	Eskaera honi erantzuteko hainbat aukera ari dira aztertzen, esate baterako, zubiak orain duen kurbadura kentzea.

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Iparragirre kalearen inguruan autobidearen emakidadunari zaraten kontrako panelak jartzea eskatu da.	<b>Obrak</b>	Eskaera hori Foru Aldundiari bidali zaio. Orain arte ez dugu erantzunik jaso.
Urkizuko dorreetakoek, trenak goizeko 05:30ean martxan ipintzerakoan ateratzen duten zarata dela eta, kexatu egin dira.	<b>Obrak</b>	Kexa honen berri Euskotren-i eman zaio, aztertu eta behar diren neurriak har ditzan. Gaur egun, makinak aldatu dira eta zarata gutxiago ateratzen diren beste makina batzuk sartu dira, egun osoan martxan egon beharrik ez dutenak.
Txontan eta Barrena kalean txakur kakak ikusten direla salatu dute	<b>Udaltzaingoa</b>	Mankomunitateak, 15ero, kalea pistolaz eta mangerarekin garbitzeko egutegi bat egiten du. Udaltzaingoari agindu garbi bat eman zaio: kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.
Karmen kaleko 11n, ibitik irteterakoan dauden arazoez kexatu dira, oinezkoen pasabide batekin batera dagoelako. Oinezkoen pasabidea lekuz aldatzea eskatu dute	<b>Udaltzaingoa</b>	Pasabidetik gertu gontz bat jarri da, sartzeko eta irteteko maniobra errazago egitearren. Pasabide hura darabiltenak konforme geratu dira.
Autobidearen sarbidean (Txopenetik Maltzagara) oinezkoen pasabidea egitea eskatu dute	<b>Udaltzaingoa</b>	Inguru horretan pasabide goratu bat egin da.
Sautsiko etheen aurrean txabola bat dagoela eta bertan ahuntzak daudela salatzen dute.	<b>Udaltzaingoa</b>	Saratsuegi parean ahuntzak eduki ditzake: nekazaritza-aldea da hura.
Barrenan albaitari batek duen lokaletik gertu ibilgailuak ilara bitan aparkatzen dutela eta, kexatu egin dira	<b>Udaltzaingoa</b>	Leku hartan zigorrak edo zehapenak jartzen dira autoek ilara bitan aparkatzen dutenean. Hori une jakin batzuetan baino ez da gertatzen.
Saratsuegin, orduko 30 kilometrotik gora zirkulatzea debekatuta dagoela liokeen seinalea jartzeko aukera aztertzea eskatu da	<b>Udaltzaingoa</b>	Inguru hartan abiadura murrizteko banda batzuk daude jarrita, galgarena egiten dutenak.

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Abiadura murrizteko lurrean ipintzen diren banda horien ordeztu beste zerbait jartzea eskatu dute, zarata ateratzen dutelako. Oinezkoen pasabide goratuak jartzea ere bai	<b>Udaltzaingoa</b>	Barrena kaleko 24. zenbakiaren parean, abiadura murrizteko bandarekin zegoen zebra-bidearen ordeztu pasabide goratua jarri da.
Azitaingo frontoiaren eta Altxubarren baserri inguruko enpresaren batekin hustubideetako batean ebaketa-likidoa edo taladrina isurtzen duela salatu dute	<b>Udaltzaingoa</b>	Hauxe azaldu zaio: horrelakoren bat ikusten duen mementoan bertan Udaltzaingoari deitu behar diola, isurketa egiten duena zein enpresa den jakiteko eta bidezkoa den salaketa tramitatzeke.
Txontan autobusaren beste geltoki bat ipintzea eskatu dute	<b>Udaltzaingoa</b>	Txontan geraleku bat dago 42-44en artean; beste bat Agiñazpian.
Udalbusa Saratsuegira sarriago joatea eskatu dute, edo, gutxienez, eskaera hori aztertzea	<b>Udaltzaingoa</b>	Enpresa bat kontratatu zen gaia aztertzeke. Etxe horrek egin duen txostenak dioena ikusita -ez dagoela behar adinako eskaririk- ez da joan-etorrien maiztasuna gehituko.
Erreka, Txontatik pasatzen den zati horretan garbitzea eskatu dute eta Solac-eko erreka-stoa kanalizatzea	<b>Zerbitzuak</b>	Bere sasoiari garbitu zen erreka. Solac-eko erreka eraikina botatzerakoan hondatu zen. Hango uraren zati bat ez zen kanalizatu, beraz, eraikina bota zutenei dagokie ura behar den moduan kanalizatzea.
Txontan argitasuna hobetzea eskatu dute	<b>Zerbitzuak</b>	Argitasunari buruzko azterketa berri bat egingo da, eta horren emaitzak aztertu ondoren, hango argiterian zerbait egiteke premia dagoen ala ez ikusiko da.
Herriko komunak sarriago garbitzea eskatzen dute	<b>Zerbitzuak</b>	Urkizuko komunak astean 6 egunetan garbitzen dira (hau da: egun guztietan, domeketan izan ezik). Komun horiek dira sarrien garbitzen direnak. Amañakoak astean 3 aldiz eta Egogainekoa 5 aldiz.
Barakaldo kaleko umeen jolaslekuaren garbitasun falta salatu da	<b>Zerbitzuak</b>	Mankomunitateari oharteman zaio inguru horretako garbiketa egiten duenean kontuan har dezan. Mankomunitateak esan diguna hauxe izan da: parkea egunero eskobatzen dela eta hilean behin garbitzen dela urarekin.

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Txontako zenbaki bakoitien osteko bidea txukuntzea eskatu dute.	<b>Zerbitzuak</b>	Urri amaieran garbitzen dira sasiak eta sastrakak.
Karmen kaleko 4 zenbakiko bizilagunek lorategien ureztatze sistemari buruzko kexak azaltzen dituzte, ur asko galtzen omen delako eta espaloia buztitzen delako.	<b>Zerbitzuak</b>	Karmen kaleko 4. zenbakiko lorategien ureztatze-sistema urtarrilaren 20an konpondu zen; dagoeneko ez du espaloia bustitzen.
Urkizuko 11. dorrera ematen duen igarobidea pintadaz josita dagoela azaldu dute; lurra zikina dagoela eta jendeak pixa egiten duela leku hartan. Gazte lokaletako gazteek, altzari-hondarrak lokalen kanpoko aldean uzten dituztela salatu dute	<b>Zerbitzuak</b>	Udaltzaingoari jakinarazpen bat bidali zaio inguru haren jarraipena egin dezan. Mankomunitateari ere bai, inguru hura garbitu eta altzariak erretira ditzan. Pintadei dagokienez, hauxe adierazi behar da: mezua iraingarria ez bada ez direla kentzen.
Barrena kaleko 24aren ostea garbitzea eskatu dute, inguru hartan arratoiak ibiltzen direla salatuta	<b>Zerbitzuak</b>	Desratizazioaren arduradunak egin zuen bere lana. Inguru hura, kanpoko enpresa batek garbitu zuen San Juan jaien ondoren.
Sahiesbideak argitasun gutxi dueta eta kexak jaso dira, argia ez baita behar bestekoa	<b>Zerbitzuak</b>	Saihesbidearen iluminazioa Foru Aldundiari dagokio, eguzki-farolena izan ezik, eta udalak urrian ordeztu zituen eguzki-farolok.
Arrateko jolaslekuko lurra hobetzea eskatu dute	<b>Zerbitzuak</b>	2012ko udan, Arraten, umeendako dagoen jolasgunearen lurtean arbola-azalak bota ziren. Nahikoa delakoan gaude.
Asola Berri eta Tekniker inguruak garbitzea eta egokitzea eskatu dute.	<b>Zerbitzuak</b>	Inguru hori asteak dituen 7 egunetatik 3tan garbitzen da; zakarrontziak zapatuetan garbitzen dira. Sasoi honetan, arbola-orriak jausten daudenez, agian inguru horretan zertxobait gehiago egin daiteke, baina hasiera batean behintzat, garbiketa egiteko astean egun 1 hartzen da, nahikoa delako.
Urkizuko parkean altura handia duen urki bat inaustea eskatu da.	<b>Zerbitzuak</b>	Ez da ikusten hura inaustea beharrezkoa denik.

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Saratsuegin, hiri-hondakin solidoak jasotzeko ordutegia bateratzea eskatu dute	<b>Zerbitzuak</b>	Mankomunitateak dio kamioi bakoitzak bere ibilbidea eta ordutegia duela; ezin direla kamioi guztiak sinkronizatu denak ordu berean pasa daitezen, ez Saratsuegitik eta ezta beste edozein tokitatik ere.
Autobidearen zubi azpian dagoen hustubidea garbitzea eskatu dute, eta Txontan, galtzadatik euri-ura joaten dela..	<b>Zerbitzuak</b>	Mankomunitateari abisua bidali zitzaion eta isurbide hura garbitu egin zuen. Uste dugu erreka hori Solac-ekoa dela. Badakigu euri-uren sarera kanalizatzeke dagoela eta "drinatze naturala" dela hangoa. Horregatik, euri asko egiten duenean, ez du ur guztia jasotzen eta ura aparkalekutik joaten da.
LIDL pareko parkea hobeto garbitzea eta komun bat ipintzeko aukerarik dagoen aztertzea eskatu dute.	<b>Zerbitzuak</b>	Komuna jartzearena, aurrekontuaren arabera dago. Parkearen garbiketari dagokionez esan behar da hori egin dela.
Azitaingo industrialdearen amaieran putzua egiten dela azaldu dute, bidearekin bat egiten duen lekuan.	<b>Zerbitzuak</b>	Alde hura orain dela gutxi asfaltatu da eta 'kaida' gehiago eman ez bazaio izan da, ezin delako. Ikuskaritzan egiaztatu ahal izan denez baranda egoera txarrean dago, beraz, konpondu egin da.
Barrena kaleko 2tik 14ra bitarteko intxaur-arbolen altura handia dela eta etxeetarako horrek duen arriskuaz oharteman dute.	<b>Zerbitzuak</b>	Ikuskaritza egin ondoren, lorezaintzako arduradunak esan du intxaur-arbola horiek ondo daudela eta lurrian ondo sustraituta. Hasiera batean behintzat ez dute inongo arriskurik. Akaso, etorkizunean, arriskuren bat ekar dezakete, baina gaur egun behintzat ez .
Karmen kalean bilketa selektiboa edo gaikakoa egiteko edukiontziak behar bezala jartzea eskatu dute, batzuetan ezin direlako zabaldu	<b>Zerbitzuak</b>	Mankomunitateak hauxe adierazi du: bilketa egiten duen kontratari , edukiontziak zuzen utzi behar dituztela adierazi diotela. Ordutik hona horrela egiten dutela esan digute.
Autobideak Saratsuegi aldean dituen zutabeak txukuntzea edo pintatzea eskatu dute; eta lurra dagoen aldea asfaltatzea edo alperzea.	<b>Zerbitzuak</b>	Hormigoizko zutabeak dira; gainera ez da pasoko alde bat. Edozein modutan ere, zutabe horien mantentzea ez dagokio udalari, Bidegirena da horren ardura.
Saratsuegi (Sautsi) kaleko 1aren eta 3aren artean, gaikako edukiontziak jartzeko eskaera egin da, beheko aldean baitaude jarrita	<b>Zerbitzuak</b>	Mankomunitateari jartzeko eskaera luzatu zitzaion bere sasoian. Jarrita daude.

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Urkizu pasealekuko 10aren ostean dauden sasiak garbitzea eskatu da.	<b>Zerbitzuak</b>	Lursailaren jabeari agindua bidali ondoren sasiak kendu egin zituen. Arazoa konponduta geratu da.
Barakaldo kaletik Asua Erreka kalera bitarteko oinezkoen pasabidean, euria egiten duen bakoitzean, putzua egiten dela azaldu dute	<b>Zerbitzuak</b>	Arazo hori konpondu du egin beharreko lanak eginda.
Se solicita cambiar de ubicación los contenedores colocados a la salida del aparcamiento de Lidl ya que dificultan la visibilidad	<b>Zerbitzuak</b>	Edukiontziek ez diote kalterik egiten ikuspenari, alde horretan ezin delako girorik edo birarik egin lerro etengabe bat dagoelako, noranzko bakar batean sartzera derrigortzen duena.
Barrena kaleko 21aren eta 23an parean zabor- edukiontziak jarrita daudelako, garajetik irteterakoan ikusteko arazoak daudela salatu dute.	<b>Zerbitzuak</b>	Bankuak pintatu dira.
Urkizuko eskolen aldameneko irispidearen inguruko kexak jaso dira. Uste dute oso estua dela eta euria egiten duen egunetan arazoak sortzen direla itoginak daudelako. Karmen kaletik sarbide zuzena izatea eskatu dute	<b>Zerbitzuak</b>	Ikastetxeko zuzendaritzarekin hitz egin zen eta sarrera nagusia erabili behar zutela aipatu zitzaien.
Barrena kaleko 50ean urarekin arazoak dituztela oharteman dute; urak gainezka egiten duela. Terrazetara sartzeko dagoen alboko sarbidea itxita dagoela azaldu dute, beraz, lurra norena den begiratzea komeniko litzatekeela hura txukuntzeko	<b>Zerbitzuak</b>	Zerbitzu sailak txukundu zuen inguru hori.
Arragueta kaleko 20an dauden arkupeak gehiago garbitzea eta txukuntzea eskatu dute (Azpiri eraikinekoak).	<b>Zerbitzuak</b>	Mankomunitateari idatzi bat bidali zitzaion inguru hura garbitzeko eta hurrengoetan ere kontuan hartu eta ez ahazteko. Esan digutenez, egin da garbiketa hori.

**BEHE ALDEKO BILERA (Beheko Tokia, 2012/11/20)**

Urkizuko beheko aldean dagoen parkeko zuhaitzak inaustea eskatu dute, zenbaki bikoitien parean daudenak	<b>Zerbitzuak</b>	Ez da ikusten arbola horiek inaustea beharrezkoa denik.
Saratsuegiko tenis eta patinaje pistetako pintadak garbitzea eskatu dute; lorategiak txukuntzea ere bai, loreak edo parterreak jartzea	<b>Zerbitzuak</b>	Pintadak, iraingarriak ez badira, ez dira garbitzen. Lorategiei dagokienez esan behar da leku horretan zuhaixka batzuk sartu direla; lorerik ez da ipintzen ez dagoelako ureztatze-sistema automatikorik.